

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Asteartea, 2010eko azaroaren 9a. VIII. urtea. 2.119. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

Biharko Memoriaren Egunaren harira ikuspegi desberdinak Tolosan

Udalak, Jaurlearitzaren deialdiarekin bat eginaz, herritarrak Aranburu Jauregiko Lorategietan egingo den lore-eskaintzara gonbidatu ditu

Ahaztuak-ek Bildarratzek «ekitaldietarako baimena ukatu izana» salatu du, hala ere, mahai-ingurua egingo dute bihar Lizardin Otamendi, Alvarez eta Agirrerekin **03**



Leire Olaberriak Europako Txapelketako omnium proba irabazi du

Ikaztegiako txirrindulariak bere errekorra haustea lortu du; geroz eta gertuago ditu Londreseko Olinpiar Jokoak **07**

Itxaron zerrendak 12 hilabeterainokoak direla salatu dute

Zahartzaro Duina plataformak salatu duenez, orain gutxi irekitako Tolosako gerontologikoan «60 adineko gutxiagok dute tokia» eta ondorioz «berriz ere» itxaron zerrendak daude **02**

→ **Laborategia, zabal-zabalik.** Asvinenea arte eszenikoen laborategiak ate irekien jardunaldia izan zuen larunbatean. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN proiektu berriaren baitan egunkaririk gabeko lehen asteburu honen erreposoa ere egin dugu 'Asteburua irudietan' izeneko sailean. **04-5**



%10 deskontua

San frantzisko, 21 - Tolosa • tel.: 943 65 27 46

Egun 60 adineko gutxiagok dutela tokia salatu du Zahartzaro Duinak

Itxaron zerrendak 12 hilabeterainokoak direla eta aukera «bakarra» plaza pribatuak eskatzea dela esan dute

Iñigo Terradillos Tolosa

Zahartzaro Duina plataformak salatu duenez, gerontologiko zaharra zegoenean baino toki gutxiago dago egun adinekoentzat Uzturre gerontologiko berrian, «60 plaza gutxiago», hain zuzen. Ondorioz, berriro ere itxaron zerrendak daudela adierazi dute. Plaza horiek «beharrezko» izaten jarraitzen dutela esan dute, «horrela erakusten baitu itxaron zerrendak, eta hutsik dauden plaza pribatuak».

Plataformako kideek eginiko agerraldian eman dituzten datuen arabera, Euskal Herria plaza zegoen gerontologiko zaharrean 64 plaza publiko zeuden, San Cosme eta San Damian zentroan 46 eta Iurreamendin 165. Denera, beraz, 275. Une hartan ez zegoen plaza pribaturik. «Egun, berriez, zentro berrian 68 plaza publiko daude eta 25 pribatu, eta Iu-



Zahartzaro Duina plataformako kideak zentro berriaren aurrean. I. TERRADILLOS

rreamendin 147 plaza publiko. Denera, beraz, 215 plaza publiko eta 25 pribatu daude».

Eskaerak

Halaber, plataformakoek herriarrak zoriondu nahi izan dituzte herriak duen zentro berriarengatik. Eta, «euren parte-hartze zuzenagatik izan ez balitz» zentro berria ez luketela «sekula» eraikiko zaharra itxi zutenean Udalak eta Diputazioak Tolosak egoiliarrentzat gehiegizko plaza kopurua zuela argudiatu zuen», esan dute. Hura itxi zutenean, baina, «ordura arte herri honetan izan ez ziren itxaron zerrendak» sortu zirela, eta «bizilagunen presioak derrihortuta» erabaki zutela zentro berria eraikitzea azaldu dute.

Zentro berriarekin, ordea, adinekoentzat toki gutxiago dagoela diote, eta ondorioz «12 hilabeterainoko itxaron zerrendak». «Horrela dauden aitona-amonien gertatzen zaien aukera bakarra plaza pribatu bat eskatu eta 384.000 pezetan hilean ordaintzea da». Honen guztiaren aurrean, «itxaron zerrenden arazoari» irtenbidea ematea eskatzen diete Udalari eta Diputazioari.

→ Laburrak

Gizonezkoen sukaldaritza ikastaroa hasiko da gaur

TOLOSA > Berdinbide elkarteak antolatuta, «gizon eta emakumeen artean etxeko jardueretan berdintasuna bultzatzea» du helburu ekimenak. Elkarteak izan duen «harrera ona» esker-tu nahi izan du, 47 gizonezko eman baitute izena, eta era berean, barkamena eskatu, eskatzaile guztiarentzat ez delako lekurik izango. «Gure aurreikuspenak gaituzten ditugu, baina, hala ere, denei erantzun nahi diegu. Beraz, beste ikastaro bat antolatuko dugu urtarrean edo otsailan», azaldu dute. Tolosako Kasinoan izango dute bihar, 19:30ean, lehendabiziko saioa.

Behi-esneaz ariko dira gaur Kultur Etxean

TOLOSA > Gipuzkoako Frisoi Elkarteak eskainita, behi-esnari buruz hitzaldia izango da bihar. Sergi Calsamiglia izango da hizlaria, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Animalien eta Elikagaien Zientzia Saileko kidea. Hitzaldia 17:00etan hasiko da, Kultur Etxean.

Ines Bengoa izango da gaur ipuinak kontatzen

IBARRA > Ipuin kontaketa saioa izango da gaur, 17:30ean, Benito Izagirre kultur etxean. Ema-naldia Ines Bengoa nafarrak zuzenduko du. Ekitaldia Ibarra-ko Udal Liburutegiak antolatuta du 5 eta 8 urte bitarteko haurrentzat. Bengoak hainbat bisita egin dizkie Ibarra-ko haurrei. Azkena urrian, Kamishibai erara kontatu zituen istorioak.

Farmaziak

GAUR

- **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274.
- **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

Tolosako Udala

IRAGARKIA

“20.1 AMAROTZ PAPER FABRIKA” AZPIESPARRUKO PLAN BEREZIAREN TESTU BATERATUAREN ONESPENA.-

Tolosako Udaltzatik, 2010eko irailaren 28an egin zuen ohiko osoko biluruan, bestek bestek, “20.1 Amartz Paper Fabrika” azpiesparruko Plan Bereziaren Testu Bateratua onspena eman zion.

Erabakia behin betikoa da, eta bide administratiboari amaiera ematen dio. Erabakiaren kontra Administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, erabaki hau jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita bi hilabete epean.

Tolosan, 2010eko azaroaren 3an
ALKATEA.
Jokin Bildarratz Sorron

Iragarki laburrak

ALOKAIRUA

■ **Baseria edo borda.** Baserri edo borda xume bat alokatuko genduke. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakira: 634 45 91 10.

LANA

■ **Zaintzailea.** Ibarra emakumea behar da, umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesatuak dei dezatela ondorengo telefono zenbakira: 608 32 19 65.

■ **Zaintzailea.** Etxeko lanak egin eta haurrek zaintzeko emakumea behar da. Interesatuak

deitu 600 86 95 04 telefono zenbakira.

SALGAI

■ **Etxebizitza.** 96 m2 dituen etxebizitza ederra. 150 m2-ko ataria eta 55 m2-ko bordarekin. Bordak argia, ura eta bainugela ditu, eta txoko bezala jarri edo ospakizunak egiteko erabili daiteke. Tolosatik 5 minutura dago, izugarriko ingurunean kokatua. Prezio berezia, jabearekin zuzenean. Interesatuak dei dezatela 670 20 52 99 telefono zenbakira.

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai

Lizartzan. Lehen solairua eta behea. Bakoitza 115 metro karratuko da. Etxearen atzealdean belardia eta borda ditu, 74 m2. Interesa duenak dei dezala 699 97 26 99 telefono zenbakira.

GALDUTAKOAK

■ **Ezkontza-eratzuna.** Villabonako Udaltzaingoa eratu ondoren ezkontza-eratzun bat utzi zuten iragan ostiralean, Etxe Ondo auzoan aurkitua. Galdu duena joan dadila Udaltzaingoa eratu ondoren, astelehenetik ostiralera.

TOLOSako UDALA

IRAGARKIA

Gobernu Batzarrak, 2010eko irailaren 20an egingako bilan, hasierako onspena eman zion “5.2 Antzinako erruki-etxea” azpiesparruaren Hirigintzako Egikaritze Hitzarmenaren proposamenari, Ingeslan S.L.k izenpetuta.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko Zazpigarren Xedapen Gehigarriko 8. apartatuaren arabera, espedientea 20 egun egingo da jendaurrean jarrita. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesaturik daudenek egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkezteko.

Epe horrek dirauen artean, ikusi eta aztertu nahi duenaren esku egingo da espedientea Tolosako Udaletxeko Hirigintzako Bulegoan, Plaza Zaharra, 6-B eraikinean. Alegazio edo erreklamazioak eraikin horretan bertan dagoen Sarrera Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira, Udaleko alkate-lehendakariari zuzenduta.

Hitzarmena behin betiko onartutak jota, alegaziorik ez bada aurkezten jendaurreko informazio epealdiaren barruan.

Tolosan, 2010eko azaroaren 2a. **ALKATEA**

TOLOSako UDALA

IRAGARKIA

2010ko urriaren 26an izandako Osoko Bilkuran, gehiengo absolutu legalaren aldeko botoekin 2011. urteko urtariraren Teikurreraren Ordenantza Fiskalak eta eranskina aldatzea erabaki zuten.

Hartutako akordioak Udaltzeko iragarki taulan ageri dira 30 egun abiletan zehar, iragarki hau G.A.O. agertu eta hurrengo egun abiletik hasita. Epe honetan, 11/1989 Arau Foralek 17. artikuluan aipatzen dituen interesdunen espedientea aztertu ahal izango dute eta egokitzat jo ditzaten erreklamazioak aurkezteko.

Informazio hau emateko epea amaitu ondoren, eta erreklamazioak edo oharrak ez badago, hartutako erabakiak behin betikoak izango dira eta ez da beste erabakirik behar.

Tolosan, 2010ko urriak 27an
ALKATEA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Tolosako Udalak bat egin du biharko Memoriaren Egunarekin

Hausnartzera eta hildakoak gogoratzera gonbidatu nahi ditu bihar herritarrak Aranburu Jauregiko Lorategietan

Eguerdian lore-eskaintza egingo dute bertan, Udaleko ordezkariak

Iñigo Terradillos Tolosa

Memoriaren Eguna izendatu dute biharko Euskal Autonomia Erkidegoan. Eusko Jaurlaritzak azaldu duenez, «aurrerantzean, efemeride honek gertatutakoa gogoratzeko digu, inoiz gehiago gerta ez dadin. Indarkeriaren biktimen memoria bizirik izanik, guztiontzat hobea izango den etorkizunean fedea eta itxaropena dugulako». Hala, Tolosako Udalak bat egin du Memoriaren Egunarekin eta egun horretan antolatuko diren ekitaldiekin, «guztion urtemuga denez garrantzi handikoa delako».

Udalak hausnartzera eta hildakoak gogoratzera gonbidatu nahi ditu herritarrak bihar. Helburu horrekin, Aranburu Jauregiko Lorategietan, Bizitzaren Zuhaitza izenekoaren alboan biltzera deitzen ditu tolosarrak.

Eguerdian, 12:00etan, Udal ordezkariak bilduko dira bertan, eta urriaren 26an Udaltzako Memoriaren Egunaren harira onartu zuten mozioa irakurriko dute. Ondoren, lore-eskaintza egingo dute. Egun osoan zehar, 19:00ak arte, bertara joan eta lore-eskaintzak egiteko aukera izango dute herritarrak.

Udaletik adierazten dutenez,

«euskal gizartearen eta euskal gizartearen ordezkariak erakundeek helburu nagusiak terrorismoa amaitzea eta normalizazioa eta bakea erdiestea dira», horregatik, herritar guztiak animatzen dituzte ekimenean parte hartzera.

Onarturiko adierazpena

Tolosako Udaltzako Memoriaren egunaren inguruko adierazpena onartu zuten gehiengoz, EB-Aralar taldearen abstentzioarekin. Adierazpenean azaltzen denez, hainbat puntu aldarrikatzen dituzte. Besteak beste, «euskal herritarrok eskubidea dugu elkarrekin bakean etra askatasunean bizitzeko, totalitarismoaren, indarkeriaren eta bazterkeraren mehatxurik gabe». Euskaldunek eta euskal erakundeek «terrorismoaren biktimen memoria etorkizuneko erreferente bihurtu arteko onik ez» dutela dio adierazpena alde egin dutenek. Bestalde, memoria «terroris-



Aranburu Jauregiko Lorategietan izango dira bihar ekitaldiak. R. CALVO

moaren indarkeria jasan behar izan duten pertsonen oinarriko eskubidea» bakarrik ez dela azaltzen dute, «biktimaren ikuspegiaren bidez, denok konpartitzen dugun gertaeren benetako kontakizun bat eraikitzeko argumentu bat» ere badela gaineratuz.

«Terrorismoak ezinezkoak diren aitzakiak eta justifikazioak ipintzen dituen tokian memoriak izenak eta datak» ipintzen dituela zehazten dute. «Terrorismoaren biktima guztiak» gogoan dituztela dio adierazpenak, «salbuespenik gabe». «ETAk, hau da, euskal-

dunon arteko elkarbizitzaoraindik mehatxatzen jarraitzen duen talde terroristak bakarrik eragindako beldurraren biktimak, baina baita ere, beste talde terroristak batzuek (GAL eta eskuin muturreko taldeak) eragindako biktimak».

Memoria gordetzea «gure artean ez daudenei eman diezaioketgun zerbitzurik onena» dela dio. «Biktima guztien oroimena gordetzen badugu, bakean eta askatasunean oinarritutako etorkizuna izango dugu, elkarbizitza zintzoa izan dezagun».

Bildarratzek «isilaraztea» salatu du Ahaztuak elkarteak

Oroimen historikoaren inguruan antolatu nahi zituen ekitaldiak antolatzeko eragozpenak izan ditu

I. Terradillos Tolosa

Ahaztuak 1936-1977 (Estatu Kolpearen, errepresioaren eta erregimen frankistaren biktimak) elkarteak «Tolosan ekitaldiak antolatzeko baimena ukatu izana» salatu du. Hain zuzen ere, «oroimenaren eta egiaren aldarrikapena, frankismoko eta 1936tik 1977ra erregimen horren aurka

borrokatu zuten biktima guztien erreparazioa eta justizia bilatzen zuten» bi ekitaldi antolatu nahi zituzten hilaren 10ean eta 13an, baina elkartetik adierazi dutenez, «Jokin Bildarratz Tolosako alkateak debekatu egin ditu».

Ahaztuak elkartetik diotenez, udaletxeko batzar aretoa eskatu zuten hilaren 10erako *Memoria egin, justizia egin* izenburupean mahai-ingurua burutzeko eta Trianguloa plaza, berriz, hilaren 13rako oroimenaren inguruko ekitaldi publiko bat egiteko. «Debekatu egin zizkiguten biak, eta horregatik, lekua aldatu genuen, Zerkausira, hain zuzen, baina hori ere debekatu zuten, handik

egun batzuetara emandako erantzunean», azaldu dute. Kultur Etxea ere eskatu zuten ekitaldiak antolatzeko, baina eskaera hori ere ukatu izan zela salatu dute elkartetik. «Azaroaren 8tik 14ra bitarteko astean hainbat ekitaldi antolatzekoak direla Tolosan, eta horregatik ezin zirela guk eskatutako leku publikoak erabili esan ziguten Udaletik». Hori jakitean alkatearen idazkariarekin jarri zuten harremanetan Ahaztuak elkarteak «erantzunak jaso asmoz».

«Jokin Bildarratz alkatearen erabakiz, gauzak ez nahaste aldera, egun horietan Udalak antolaturiko ekitaldiak soilik baimenduko zirela argudiatu zuten».

Bada, gertakari horien aurrean, Ahaztuak elkartetik, euren eskaerei erantzuna emateko igarotako «denbora luzea» salatu dute, «are gehiago eskaera ukatuko zutela hasieratik zekitelako». Bestetik, «herriko leku publikoak erabiltzeko eskubidea» aldarrikatzen dute, «herritar guztiak bezala gure zergekin ordaintzen ditugulako, eta leku horietan adierazpen askatasuna exijitzen dugu».

Bestalde, Ahaztuak elkarteko enabera, Udalak oroimen historikoaren eta biktimen inguruan antolaturiko ekitaldiek «hutsuneak dituzte, eta frankismoaren biktimentzat iraingarria dena gorde eta leundu nahi dute,

biharko egunean biktima bezala diktadura frankistaren ordezkari politiko eta polizia omenduko dituztela, alegia».

Horregatik, «Udalaren jarreraren erantzun eta protesta gisa», aurreikusita zituen ekitaldiak antolatuko ditu Ahaztuak elkarteak. Hala, *Memoria egin, justizia egin* mahai-ingurua, bihar izango da, Lizardi elkartearen, 19:30etik aurrera, Martxelo Otamendi kazetaria, Joxean Agirre Euskal Memoria fundazioko kidea eta Martxelo Alvarez Ahaztuak elkarte-kidearekin. Hilaren 20an, bestalde, ekitaldi publiko egingo dute.

• tolosa@hitza.info

Lehen urteurreneko eskaintza berezia

SHUYANA
LDBERLINTZA

Eskolapioetako Lorategiak, 3 • 1A
TOLOSA • Tel.: 943 67 54 89

Shuyana kosmetika denda
Korreo kalea 1 • Tel.: 943 67 14

Abenduaren Tetik 20ra
%20ko deskontua makillaje eta kosmetikoetan

Era berean, zerbitzu edota produktuen
3 opari bakoitzeko 10€-ko zara.

100€-ko saria: 100€
200€-ko saria: 50€
Hirugarren saria: 25€

Azaroaren 5ean argitaratutako iragarki honen eskaintza ez da baliozgarria. Barkatu eragozpenak.

Tolosa



FRISOI ONENEN BILGUNE

Larunbat goizean, Ferialekuan eskualdeko baserritar ugari elkartu ziren. Frisoi arrazako behiak izan ziren kussagi bertan, II. Euskal Herriko Frisoi Txapelketa jokatu bitartean. Zazpi ganaduzalek hartu zuten parte, modalitate ezberdinetan. [»](#)

Ibarra



TALOAK ETA ARGAZKIAK

Goar Lopetegik irabazi du Ibarrao Gazte Asanbladak antolatutako argazki lehiaketa. Igandeko goizean, argazki guztiak kussagi jarri zituzten gazteok. Arratsaldean bertan, taloak janaz, sarri banaketa ere egin zuten. [»](#)

Berastegi



ARROZ ESNE ONENA, SAIZARRENA

Kultur Astearen baitan, II. Arroz Esne Lehiaketa jokatu da. 27 lagunek hartu zuten parte, eta garaile Mari Jose Salzar izan zen. Luxuzko epaimahaia izan zuten, tartean baitzen David de Jorge, Robin Food sukaldaria, Bigarren, Mariñoli Abucakano garaile zuten, eta hirugarren, Eva Garaikotzea. [»](#)

Ibarra



200ETIK GORA BABARRUNA JATEN

Inoiz baino jende gehiago bildu zen Hauspoo elkarrekin antolatutako X. Babarrun jatean. Hohen aurretik hainbat ekitaldi izan ziren, tartean, estreliak jokatzin zen Babarrunaren Lehiaketa Ibarra. Bertan, Ainhoa Golaotzea eta Maite Iparagire izan ziren garaile. [»](#)

Laser Promozioak
Azaroaren lehiaketa Ibarra
 Arka esan ziborra 5 sartze
1.250€
 Boletoak ziborra 5 sartze
195€

SHYANA
 BISTERRA: Euzkalgarrena
 Luruzte 31 1A T. 943 875 488
 AZERETA
 Korta 1 T. 943 871 488

OPARI BAT ERAMAN ZURE EROSKETAREKIN BATERA IRAGARKIA ERAKUTSIAZ (Azerokak 30 arte)

San Frantzisko, 23 Tolosa • Tel.: 943655719
www.tantadenda.com

Gaztelu



IMANAK EGITEN

Asteburu Kulturala ospatu dute Gaztelun, eta ekitaldien artean, eskulan tallerre egin zuten. Bertan imanak egiten ikasi zuten haurrek. Jarduekin jarraituz, etzi, merienda eta ipuin-kontalariaren saioa izango dituzte, 17:00etatik aurrera. [»](#)

Anoeta



HONDAKINAK MINTZAGAI

Joan den ostiralean, Gipuzkoa Zero Zabor (GZZ) taldeko kideek «Hondakinen arazoa Gipuzkoan: Ezinbesteko kaltea ala eredu okerraren ondorioa?» hitzaldia eskaini zuten Anoetako gartetxean. 30 lagun inguru bertaratu ziren eta interes handiz segitu zituzten bertan esandakoak. Hondakina eta zaborra gauza bera ez direla azaldu zuten hizlariek. [»](#)

Albiztur



BIZKAIKO TXAKOLINA DASTATZERA

Bizkaia aldera irteera egin zuten larunbatean, Albizturkoek. «40 lagun inguru hartu zuten parte. Udalak antolatutako txangoan. Hasteko, Gernikako Itas-mendi txakolindegi bisitatu zuten, eta baita herria bera ere. Gero, Kortazubin, bertako alkate izandakoaren, Markoren jate txean bazkai zuten, eta arratsaldean, Ondarroa bisitatu. Hurrengo txangoa udaberrian egingo dute. [»](#)

Alkiza



GURPILARI BULTZAKA SANMARTINETAN

San Martin egunaren harira, larunbatean, bertan arropaketa egin zuten, eta ondoren, Di txerri zozketatu zituzten, Bertan, 25 eta 028 zenbakidun txartelak izan ziren sarituak. Igandean bertan, Emakumeen IV. kurpil lasterketa jokatu zen. Bessalde, San Martin egunaren bertan, hainbat ekitaldi ospatuko dituzte. Pallazoak, merienda eta musika emanaldia izango dira. [»](#)



Alegialdea



Hainbat herritarrek parte hartu zuten Herri Zentroaren inaugurazio ekitaldian. SARA GOMEZ

Herri Zentroa inauguratuta

Jexux Iñurríta alkateak azaldu duenez, «guretzat ametsa izan dena errealitate bihurtu da»

Imanol Garcia Amezketara

Herri Zentroaren inaugurazio ofiziala egin zuten atzo Amezketan, Kultur Astearen baitan. Herriaren erdian dagoen Aierbenea etxea eraberritu dute, bertan gizarzte eta kultur zerbitzuak emateko. Oraingo lehene fasea burutu da eta atzoko ekitaldian Jexux Iñurríta alkateaz gain, Markel Olano ahaldun nagusia, Rafa Uribarren Landa Garapeneko diputatua eta Florentino Ugalde Etorlur entitatearen kudeatzailea izan ziren.

Iñurrítak azaldu zuenez, «legealdiko proiekturik garrantzitsue-

na da Amezketarentzat. Guretzako ametsa izan dena errealitate bihurtu da. Legealdiaren hasieran ilusio dena jarri genuen, baina ez dakit zenbateraino sinisten genuen proiektua gauzatuko zenez. Beraz, lortu dugunean asebetetze handia izan da».

Inaugurazio ekitaldia herriko hiru haurrek egindako aurrreskuarekin hasi zen. Ondoren agintariak hitz egin zuten eta gero, agintariak zein herritarrek, erai-kinaren barrura sartu ziren. Bisita egin ondoren, mokadutxoa hartzeko aukera izan zuten bertaratu ziren herritarrek.

Hiru solairu

Herri Zentro berriak hiru solairu ditu. Behe solairuan harrera, areto nagusia, komunak eta bildegia daude. Lehenengo solairuan gizarzte zerbitzuekin lotutako ekipamenduak egongo dira: etxebizitza tutelatuak eta eguneko zen-

troa. Bigarren solairuan kultur zerbitzuak egongo dira: liburutegia, KZgunea, ludoteka eta baloianitzeko gelak.

Proiektuaren lehenengo fasea amaitu da. Bigarren fasean lehen eta bigarren solairuko ekipamenduak osatuko dira. Oraingoan erabilgarri dagoena behe solairua da. Dagoeneko Kultur Astearen erabilgarri dute areto nagusia musika emanaldi bat egiteko. Bigarren solairuan ere aurki pilates ikastaroa ematen hasiko dira.

Lehenengo fasearen kostua 2,2 milioi eurokoa izan da eta bigarren faseak 400.000 euro inguruko kostua izango du. 2,2 milioi euroko aurrekontuari aurre egiteko diru laguntzak jaso ditu Udalak eta horiekin erdia inguru ordaindu ahal izan du. Aurrekontuaren beste erdia ordaintzeko, besteak beste, Udalak 360.000 euroko mailerua eskatu behar izan dio Kutxiari.

Jakoba Errekondo Paisajista

Alegiako Udazkenean Kultura egitasmoaren baitan Jakoba Errekondo paisajistak hitzaldia emango du gaur landareen inguruan.

«Jendeak gero eta interes gehiago du landareetan»

I. Garcia Alegia

Jakoba Errekondo (Usurbil, 1961) paisajista da ogibidez, hau da, «paisaiak, jardinak eta gu bizi garen inguruak diseinatzen dituen». Baina ezagunagoa da landareetan aditua izateagatik eta hainbat komunikabideetan jendearen kezak argitzeagatik. Udazkenean Kultura egitasmoaren baitan hitzaldia emango du gaur Kultur Etxean, 18:30ean, *Landareei buruz elkarrekin hitzketan* izenburupean.

Nolako hitzaldia izango da?

Jendearen kezak argitzeko balioko du. Ordu erdiz edo landareen bizimodua azaltzen dut. Nondik nora bizi diren landare gehienak, orokorrean. Jendearen galdera-erantzunak hasten direnean ikusten da hor daudela erantzun guztiak. Gero galdereetan, jendeak nahi duen gaitaz hitz egingo dugu: baratzeak, lorategiak, etxe barruko landareak, fruta arbolak, basoa... Jendeak galderak prestatuta baditu, hobe. Galdera asko badira, hizketaldi aberatsagoa izango dugu.

Nolako erantzuna izan ohi aurretik egin dituzun solasaldiek?

Normalean jende asko joaten da eta normalean hiru bat orduko hi-



ESTITXU IMAZ / GOIERRIKOHITZA

tzaldiak izaten dira. Jendeak gero eta interes gehiago du landareetan. Garai batean gauza jakinagoak landatzen ziren, baina orain gauza bitxiagoak landatzen dira eta horren jakituria ez dugu. Bestalde, ikaragarriko grina piztu da gazteen artean baratze ekologikoak direla, kalitatezko bizimodua dela...

Zuk zeuk ere izango duzu baratzea edo lorategia.

Bai, badut, eta saiatzen naiz eramaten. Nik uste dut baratzea dela pertsona batek izan dezakeen luxurik handiena.

Hilberriak

BIXENTE MARITXALAR JAUREGUI
 Azaroaren 6an Izal-en (Nafarroa) hil zen, 64 urte zituela. Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
 - Goian bego -
 Aita zoragarria izan zera izan zioriontsu zure seme eta senideekin.
 Bere emaztea: Asun Ibarbia; seme-alabak: Amaia, Mikel (†); gurasoak: Felix (†) eta Luisa (†); ezkon gurasoak: Josepa Zubelzu eta Miguel Ibarbiaren (†); anai-arrebak: Luis, Inazio eta Pilar, Tiburcio (†) eta Maltzer (†); Manuel (†) eta Nieves; Arantxa eta Jexux, Joxe eta Bixen; ezkon senideak: Maritxu eta Marixial, M^{te} Jesus eta Agustín, Tere eta Juan, Arantxa eta Jorge, Jose Luis, Lurdes, Julian (†), Aitor eta Aintzane; osaba-izebak, llobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak. Haren arimaren alde otowitz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitzetzela GAUR ASTEARTEA arratsaldeko ZAZPIETAN, Ibarriko SAN BARTOLOME parrokia etxean, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.
IBARRA, 2010eko azaroaren 9a
Oharra: Gorputz beila Tolosako ORIA TANATORIOAN (Usabal poligonoa) egongo da GAUR ASTEARTEA arratsaldeko 16:00ak arte.

BIXENTE MARITXALAR JAUREGI
 Mendi goietan uso ta honddo orbela eta garoa dudarik gabe Bixente zure gustoko zenun aroa aurten ordea ustekabeak garraztu du azaroa udazkeneko haize leunak gaur zure hatsa daroa
Amaiaren lagunak
IBARRA, 2010eko azaroaren 9a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da hilberriak-urteurrenak-eskertzak
HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle
 ESKEKAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
 tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

HILETAREN BALIOA Txina Inperiala
 Funeraria Vascongada ere pertsatzen dugu pertsona bakotzak bere neumiko hiletan izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.
 Berreskurazozina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.
FUNERARIA VASCONGADA EHOZKETAK
902 402 900
 www.funerariavascongada.com

Irudia ◊ Tolosa**GIPIZKOAKO TXAPELKETA**

Gipuzkoako 3. mailako Xake txapelketa ari da jokatzeko Tolosako Xake Elkartean. Txapelketa hiru lekutan egiten da; Donostian, Tolosan eta Azkoitian. Tolosakoan Beasain, Villabona, Asteasu, Anoeta, Alegia eta Tolosako hamabost jokalaririk ari dira. Lehen hiru postuetan amaitzen dutenak bigarren mailara igoko dira zuzenean. Larunbatean azken txanda jokatu da. Igotzeko aukera gehien dituen Andoni Cotta beasaindarra da. Atzetik, Cayetano Otaegi tolosarra eta Aitor Alkorta billabonarra daude. Igandean 09:30ean, xake azkarreko txapelketa antolatuta du Urriña Txiki elkarteak eta bertan izango da. Eskualdeko edonork parte har dezake. **HITZA**

Ibarbia eta Casado izan dira garaile XX. Kros herrikoian

Haurren lasterketaren ostean, 200 lasterkari ateratu ziren eta 10 kilometroko ibilbidea egin behar izan zuten

Erredakzioa ikaztegieta

Herrigintza Elkartek antolatuta XX. ikaztegiako Kros herrikoia izan zen igandean. Hamar kilometroko ibilbidean, 200 korrikalarik parte hartu zuten.

Helduek euren lasterketa hasi aurretik, herriko haurrek egin zuten lasterka. Hauen ostean, 11:00etan helduen txanda izan

zen. Gizonezkoetan helmugara iritsi zen lehena Antonio Casado izan zen 31:45eko denbora eginez. Honen atzetik, J.C. Valdivieso eta Hassan Ait Chou helmugaratu ziren. Emakumezkoetan lehena Aitziber Ibarbia izan zen 39:31ko denborarekin eta atzetik Amaia Arbillaga eta Isabel Dumall sailkatu ziren.

Herriko lehen emakumea Ina Agirre izan zen 56:01eko denbora eginez. Gizonezkoetan berriz, urtero bezala, Joxe Mari Garmendia izan zen, erlojua 37:04an geldituz. Lehen emakume beterranoa Pilar Arriola izan zen 44:38 denborarekin eta gizonezkoetan Koldo Urrestarazu 34:30 denbora eginez.

Lasterketan parte hartu zuten lasterkari guztiak saria jaso ostean. **HITZA****Leire Olaberriak Europako Txapelketako omnium proban urrea eskuratu du**

Bere errekorra hautsita, garbi utzi du Londresen jokatu diren olinpiar jokoetan izateko lan bikaina egiten ari dela

Erredakzioa ikaztegieta

Leire Olaberria txirindulariak beste garaipen bat eskuratu du. Pekingo Olinpiar jokoetan eskuratutako brontzezko dominaren

ostean, garaipenak bata bestearen atzetik eskuratzen ari da. Asteburu honetan, Pruszkow (Polonia) hirian jokatu den Pistako Europako Txapelketako omnium proban urrea eskuratu du.

Omnium proban urrea eskuratu, Europa mailan oso goran dagoela garbi erakutsi du ikaztegi-tarrak. Olaberriak 26 puntu eskuratu zituen eta bere atzetik, 29 punturekin Sharakova bielorrusiarra sailkatu zen eta Wojtyra poloniarra brontzezko domina

eskuratu zuen 34 puntu eskuratu.

Omnium proba, abiadura, erregulartasuna eta iraupena ardatz dituen modalitate berria da eta proba ezberdinak tartekatzen dira. Asteburuan Polonian jokatu den txapelketan, saio bikaina egin du. Jazarpen proban irabazi egin zuen eta berea zen Espainiako marka ere hobetzea lortu zuen. Eraitza ezin hobekia lortzen ari da eta gero eta gertuago du Londreseko jokoetarako txartela.

Ostolazak garaipena lortu du Albitzuri-Aundia harriari zortzi altxaldi emanda

Aurreko lehiaketan ere bera izan zen garaile hamaika jasoaldirekin. Urtzi Telleria izan zen harridura sortu zuena

Imanol Garcia Amezketak

Zortzi altxaldi egin zuten lortu zuen igandean Ostolazak Amezketan jokatuako Albitzuri-Aundia harriaren txapelketa. Aurreko lehiaketan ere bera nagusitu zen, baina orduan 11 altxaldi egin zituen. Halere, harridura sortu zuena Urtzi Telleria 24 urteko harri-jasotzailea izan zen.

Bost altxaldi egin zituen 81 kiloko mutilak eta bigarrena gelditu zen. Lehenengo aldia zen Telleriak parte hartzen zuela eta, beste parte-hartzaileek bezala, hiru minutu izan zituen harriarekin prestatzeko.

Ostoloz Albitzuri-Aundia harria jasotzen. **SARA GOMEZ**

165,5 kiloko harriari bost altxaldi egin zizkion ere Joxe Ramon Iruretagoiena, Izeta II.a, aiarrak. Baina honek hirugarren postuarekin konformatu behar izan zuen, Telleriak baino gehiago pisatzen baitu.

Araudiak dioenez, altxaldi kopuruetan berdinketa badago, gutxienean pisatzen duena gailentzen

da. Laugarrena lehiaketan Jexux Mari Iruretagoiena, Izeta III.a, izan zen. Lau altxaldi egin zituen aiarrak. Unai Lertxundi izan zen bosgarrena, altxaldi bakarrarekin. Eskualdeko bi harri-jasotzaileek, Hernialdeko Joxe Calvok eta Iban Ugartemendiak, Albitzuri-Aundi altxatu gabe amaitu zuten txapelketa.



HITZAK harpidedun batentzat sarrera pareia du



LAGUN ARO GBC
Bizkaia Bilbao Basket
saskibalo partida

Azaroak 12 • Ostirala • 20:30etan • Donostiako Ilunben



HITZA

sarrerak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira



sarrerak



Galtzaundi Euskara Taldeak antolatutako **Afari Txoua**

Azaroak 12 • Ostirala • 21:00etan • Tolosako Iurre elkartearen



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_publici@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orea, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agurrak



Zorionak Aitatxo!

30 aldiz tirako dizut belarritik eta mila muxu bidaltzen dizkizut bihotzetik! Maite zaitut!



Zorionak!

Uxue Aizpurua de Paz (Asteasu).
Pasa den igandean 8 urte.
Zorionak eta muxu handi bat
famiariaren partetik.



Zorionak!

Josh. Gaur urte bat. Zorionak
eta muxu handi bat Eneko,
Maier eta etxekoan partetik.



Zorionak Eneko!

Muxu eta besarkada erraldoiak maitia! Eutsi gogor! Hurrengo afaria zure kontu! Maite zaituztegu!



Zorionak!

Manex Tejeria Larrarte (Zizurkil).
Aupa futbolista. Herenegun
5 urte. Zorionak etxeko
guztien partetik.

HITZAK ez du bere gain hartzen
egunkarian adierazitako esa-
nen eta iritzien erantzukizunik.

**URREA
EROSTEN
DUT**

Momentuko ordainketa eskura
Aldatu ezazu urrea euroen truke
Edozein eskaintza hobetzen dugu
TASAZIARIK ONENA !!
Rondilla kalea 25, behea